

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK:**

Baliabideak funtsezkoak dira enpresa aurrera eramateko, gure kasuan giza baliabide aktibo nagusienak imajinazioa edo sormena (diseinuak sortzeko) eta merkataritzarako trebezia (besteei gure proiektuaren berri emateko) izango dira.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak kontuan hartuz, gure produktua biltzeko erabiltzen ditugun instalazioak izango dira. Produktuak gordetzeko, almazen bat izango dugu (alkilatuta).

Bestalde, finantza baliabideak gure aurrezkiak izango dira. Hasieratik asiko garenez gure enpresarekin, ez ditugu etekinak edukiko eta beraz, dena ondo ateratzen bada gure negozioa zabaltzeko aukera edukiko dugu eta aprobeztatzeko nahiko eskudiru lortuko dugu. Kapital txikiarekin hasiko garenenez, ingurukoen (familia, lagunak...) laguntzaz ere baliatuko gara eta mailegu bat eskatuko dugu hasiera batean, gure enpresa aurrera eramanez ahal izateko.

Sozio bakoitzak, diru kopuru bat jarriko du hasieran, enpresa aurrera eramateko. Dirua galduko dugun arren, geroago dirua irabazten hasiko garenez, konpentsatuta ikusiko gara behin dena ondo antolatuta dugula.